

Euskaltzaindi-ko 5'garren solas-aldia

JOSE MARIA LOJENDIO

Mogel

1545' garren urtean, Bernat d'Echepare Eiheralarreko Erretoreak, lenengo euskal irakurgaia argitaratzean, "euskara da kanpora" de-
dar alaitsu ura bota zuen egunetik, zenbat euskal idazle ez ote dira
ieiatu, euskeraren soñu zarrak, moldiztegi edo irarkolaen bidez,
bazterretan zabaltzen.

Ederra ta zalla benetan, gure lengo euskal idazle zarrak artu zuten
lana! Garai artan, euskeraz irakurtzeko gogo gutxi zegon, baña gizon
aiek, euskera maite zuten, eta benaz maite duenarentzat, mugarik
ez. "Orai badirudi —Axularrek zion— euskara ahalke dela, eztela
jendartean ausart". Baña au esan de gero, Axularrek berak, argi
asko, euskeraren sendabidea adierazten digu: "Baldin egin balitz eus-
karaz, hanbat liburu, nola egin baita latíñez, frantzesez, edo ber-
tze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen
zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute
falta eta ez euskarak". Euskal liburuak bear ziran beraz, eta lan eder
orri, gogotik ekin zioten Euskelerri alderdi danetan, gure aspaldiko
idazle zintzoak.

Askotan, euskera, elerti —literatura— gabeko izkuntza dala esan
oi da. Ez orrelakorik. Ba dago bai, euskal elerti bat. Erderazko izkun-
tzenen aldean, ez omen da oso aundi ta itxurazkoa. Ozta ozta, beteko
lirake berarekin, neurri oneko liburutegi baten apalak. Baña luze
ta zabalez aundia ez ba da, bai guretzako beintzat, iñungoa ez bes-
telako samur ta kutuna.

Euskaldunak ba ditugu gure liburu zarrak, eta liburu oyetan izu-
garriko aberastasuna degu: antxiñako esaera sakonak, ipuiak, neur-
titzak, otoitzak, nekazari ta arrantzaleentzako erakustaldi jakingarriak,
senar-emazte ta guraso ta semeen arteko goraberetan argibideak, eta
beti ta nun nai, liburu zar agurgarri ayen orrialdeai itsatsita bezela,
lengo zarren aztarna, aiton-aitonen arnasa ta izkera bizia, gure mendi,
baso ta baserrien garo-usaia.

Bejondeizutela zuei, gure illeroko batzar aben eratzalleai, euskal idazle zarren lanak maite ta zabaltzen dituzutelako.

* * *

Villasante, Mitxelena, Irigarai ta Arrue Jaunak, Echeberri, Oihe-nart, Axular eta Agirre idazleez, itz egin digute. Beren itzaldi argi ta mamintsuen bitartez, Lapurdi ta Gipuzkoako edertasunak ikusi ta gero, goazen gaur, Bizkai aldera. Gipuzkoarrak, Bizkaiko izkuntzaren soñuak entzuteko, ez degu erritik kanpora joan bear, Gipuzkoako alderdi batean “euskeria berba eiten” bai da, beste batean “euskeraz mintzatzen” dan bezelaxe. Ta Bizkaiko izkuntza, erdi gurea bada, gurea degu ere, jayotzez beintzat —eibartarra— bere idazlerik aundi ta jatorrena: Juan Antonio Mogel Urkiza, Markiñako Apaiza.

Sendagile baten semea, 1745' garren urtean jayo zan Eibarren. Bere gurasoak, Eibar eta Deban bizi ondoren, Markiñara —amaren jayoterrira— juan ziran eta an bizi izan zan gure gizona, 1804' garren urtean il arteraño. Apaiz ona, gizon jakintsua, Humboldt Jaunaren laguna ta lankidea, asko idatzi zuen. Erderaz eta euskeraz. Eta euskeraz berriz, gipuzkoeraz eta bizkaieraz. Mogelen euskera, erreza, argia ta aberatsa da oso.

1800'garren urtean, Iruñeko Ezkerro Liburugille Alargunaren etxean, azaldu zan bere lenengo euskal liburu: “Konfesio ta Komunjio—ko Sakramentuen gañean Erakastetak, edo Zenbat gauzak lagundu be—ar dien Konfesio ta Komunjioari, ondo egiñak izaiteko. Ateratzen du “argira Giputz itzkeran Kristau euskaldunen onerako, Don Juan “Antonio Mogel ta Urkiza Markinako Kura edo Anima-zaia”.

Garai artako euskaldunak, euskera gora-bera, gaurkoak bezelako istiluak zerabilzkiten. Euskeraz idaztea, etzan gauza erreza. Idazleak, irakurleak bear, eta euskaldunak, ez zeuden euskeraz irakurtzen oituta. Kaleko jakintsu edo jakintsu usteko geyenak berriz, erdera zaletxoak ziran. Apaizak, sendagileak, eskribauak, ez zuten baserritarren eraz itz egin nai, ta beren euskera, erbesteko itzez betea, ta erdérako neurritz tajutua, ez zan —Aita Larremendik zionez—. “itzera naasi bat, bein Euskera, bein Erdera, bein Latiñera, guzia leudatua, zikindua ta baraustua” besterik.

Baserritarrak ordea, euskaldun utsak ziran, euskeraz besterik ez zekiten, eta biotz biotzez maite zuten beren jatorrizko izkuntza. Berak irakurriko lituzteke, bai pozik, euskerazko ipuiak eta kondairak, baña, nola berak irakurri!

Eragozpen abek ez zituzten Mogelen asmo sendoak argaldu. Bai baserritarrai, bai kaletarrai, euskal liburu bereziak emango zizkien. Geien bear zutenai lenbizi: baserritarrai. Mogel, oso baserritarren

laguna izan zan beti. Apaiz ona bezela, ongi ezagutzen zituen base-
rritarren beartasunak, eta berai ta beren arimen osasunari begira,
“Konfesio ta Komunioko” len aitatu dedan liburua argitaratu zuen.

“Artu nuen orduko asmo ta gogo, argitaratzeko orain ekusten de-
zun Libro euskerazko au, ezagutu nuen, batek baño geiagok jardungo
“zutela marmarioz, ta nere leporako zirala itz gogor ta aztunen kar-
“ga guziak. Beldurtzen nintzan zerbait, atzeratu ere bai aldi batzuetan
“beste askotan artzen nituen gogo gori ta beroetatik. Nere buru zalea,
“edo nerekoa izanik jatorriz, esaten nuen nere artean: Zerk sartu
“nai zaitu, zu baño gizon jakintsuagoak artu nai izan ez duten lan
“gogorrean? Euskeraz ondo itzak erakastea, gauza gaitza da. Konfesio
“ta Komunioko Sakramentuak zeero ta banaan azaldu ta adieraztea,
“oraindik gaitzagoa zertan edo artan uts egin gabe. Zer egin bear
“nuen bada? Ixildu? Gorde burua, ta ez eman Euskaldun nekezale edo
“langilai Jangoikoaren itz santuaren ogia? Au zer da? Erdaldunak
“izango dituztela Libru gisa guzietakoak ugari, ta geiegiaz bezela, ta
“Euskaldunak ain urri. Erdaldunak ez dira atzeratzen, ateratzetik Dok-
“trina santuko Libruak, badakite ere gauza gaitza dala erakastea zeero
“ta apur apur eginda bezela Fedeko gauzak, ta gure Kristautasuneko
“egin bideak, ala Jangoikoaren amar agindu edo mandamentuen, nola
“Sakramentu santuen gañean, ta eragozpen guziak, ta gaitztasun ga-
“raitu eziñak egongo dirala Euskaldunentzat? Zer egin bear nuen
“bada, diot berriz? Larga koldarkeria, ta ikara guztiak, ez entzuterik
“eman erauntsi, berriketa ta esamesai, ta dendatu, azkortu, ta biotz-
“aunditu, emateko Euskaldun beargilai, argia beren jakin ezetan”.

Mogelek, bere Eleiz-liburuak idazten dituenean, Apaiz-lana egiten
du, al duen euskerarik errezena erabiliaz, Jangoikoaren itza, gero ta
geiago zabaldu dedin. 1803' garren urtean, Mogelen bigarren liburua
azaldu zan. “Konfesino ona”. Ia lengoa bera da, baña bizkaieraz ida-
tzia. Mogel, joyotzez gipuzkoarra izan arren, izkuntzez, bizkaitarra
degu. Bizkaitar iztunik jator jatorrenetakoa. Entzun bestela, bere bi-
garren liburu onen asiera:

“Orra nos agertuten natxatzun aspaldi onetan eskatuten zendubana
“emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan Konfesinuaren gañeko
“Liburua. Nik ikusi baneu bizkaitarretan euskeriaren zaletasun ki-
“putzetan nekusana, ez nintzan ain esker dongakua izango, zein da
“itxiko nituban barurik neure bizkaitarrak, Jangoikoaren herbiaren
“ogi ederra zabaldu atzeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan. Ez
“dot damu artu neban asmo ta nekia. Neure biotzeko pozik andijena-
“gaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Gipuz-
“koa ta Bizkaijan. Jakin dot Abade Jaun askok irakurten ditubezela
“Elexetan, ta nekazale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerrik, ta

“bai Jangoiko doe guztien emoliari. Bazaut, autor dot, ta ez daukat
“eztuta bizkaitar barrukuentzat gatx izango dala Kiputz euskeria ondo
“aditutia. Baña berba askatu adituten ez dirianak, aditu oi dira lotu
“ta katetuta dagozan bestiakaz batera. Alan bere, atsegin ematearren,
“ta gauza ain biarrak itsatsi ditezen obeto bizkaitarren biotzetan, ipiñi
“dot Liburu bera bizkaiko euskeran, ta zerbait laburtu ditut luziak
“zirudijezen Irakaste edo Doktrinak. Au egiñaz liburubak urtengo dau
“eskuor ta txikarragua, merkiaguaz ostian. Ze poza niria entzuten
“ba dot bizkaitarrak alkarren leijan dendatuten diriala erostera liburu
“au, ez biotza iminirik daukadalako saldu erosijetako irabaztetan, ta
“bai diruba aurreratuten dabeenak liburu onen agermenerako, kalte-
“rik izan ez dagijen, oztu ta atzeratu ez ditezen urrenguetarako!”

“Esaten dabee gitxien esan biar leukeen askok —jarraitzen du
“gero— euskeria baldresa, traskila ta soñoko zantarduna dala; ezin
“iñok apaindu leikiala. Nik gura banau apaindu bere etxe ta utxan
“daukazan bitxi ta jantzi ederrakaz, apaindubagua urtengo leuke
“erdera askok baño; baña ezagutuko ez leukee etxekotzat, dongaro
“jantzita beti ikusi dabeenak. Orregaitiño ez dot jantziko jaiegundetako
“soñokuakaz; esan gura dot, ez dodala irakatsiko noraño elduten dan
“bere ugaritasuna berbeetan. Gura dabenak sinistu bizkaiko euske-
“riak ez deusala ezer zor kiputzenai, irakurri begi, liburu onek baño
“leenago urtengo daben neure adiskide andi ta gauza onetan neure
“biarlagun legez egiten dan Aita Frai Pedro Antonio Añibarro, Za-
“rauzko Kolejio A. San Franziskoko Ordean Misionarijak bizkaitarren-
“tzat atera daben liburu txikar, baña urre guztiak baño geiago balio da-
“bena. Ediroko dau “Eku-liburu” onetan Bizkaiko euskeran ederto adi-
“erazo leitezala esan biar dirian gauzaak, berba nekezaleen aotetan
“dabilzanakaz. Bizkai barru barruko semia da bera, ta bere euskera
“garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau nun ikasi leitiala ondo berba
“egiten, buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egon-
“go dira bedar txarrez betiak”.

Mogelen soluan ez zan alper egoteko betarik. Ura langilearen bi-
kaña! Ura euskerenganako maitasuna! Kaletar erderazalei, euske-
raren aberastasuna erakutsi nai zien. Eleiz-liburuetan ez ezik, gañe-
rako beste edozein idaz-gayetan ere. Euskaldunen izkuntza, izango
ez ote zan bada, beste errietakoak bezin trebe ta egokia, berak aña
gauza esateko? Noski, euskaldunak, burua zerbait nekatu nai izan ez-
kero. Eta Mogelek, euskaldunen alperkeri ta nagikeria astindu naiean,
ekin zion lanari.

Aitatu ditugun irakurgaien ondoren, beste bi geiago idatzi zituen:
“Kristau dotrina” eta “Kristinaubaren jakinbidea”, eta eleiz-liburuez
gañera, olerkiak, ipuiak, alkar-izketak, Quinto Curzio, Salustio, Tito

Livio, Tacito ta Ciceronen itzaldien itzulketak, eta euskeraz egundako idazlanik ederrenetako bat, euskerazale guztiak bein da berriz irakurri bear luteken liburu kutun zoragarria: “Peru Abarka”.

“Peru Abarka”-ren izena, itz-aurrekoa ta azalburuak, erderaz daude. Mogelek, len esan degun bezela, kaletar euskaldun nagiak, ernatu, iratzarri nai ditu. Kaletarrak, erderaz oituagoak zeuden, eta orregatik erderaz ari zitzaien Mogel, “Peru Abarka”-ren aurreneko itz oyetan. Orra liburuaren izena: “El Doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte, o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan”.

“Peru Abarka”, emezortzigarren mende-ondarreko lana da. Garai artan, Europako erri geienetan, eta Frantzian batez ere, idazle, erri-gizon eta jakintzarien tartean, nekazaritzarako zaletasun bizia sortu zan. “Le retour à la nature”; au zan orduko ameslarien asmo ta elburu bakarra, ta gai ori gora bera, naikoa idatzi zuten. (Bernardin de Saint Pierre’k: L’Arcadie, Etudes sur la nature, Paul et Virginie. Rousseau’k: Discours sur l’origine de l’innégalité parmi les hommes, La Nouvelle Héloïse, Le contrat social. Le Marquis de Vauvenargues, Quesnay, Dupont de Némours, eta abar.

Mogelek ezagutzen bide zituen idazle aben lanak. Frantziko matxinada odoltsuen bitartean, ba zan beti, bere Markiñeko etxean, Frantzitik igesi etorritako apaizen bat edo beste. Ta askotan, ez bat bakarik, baita lau ta bost apaiz ere batean. Erbestetutako apaiz oyek, beren erriko goraberen berri zekarten, eta entzungarriak omen ziran, etxe-nagusi ta bizi-lagunen arteko jardunak. “Peru Abarka’k” ba du zerbait “le retour à la nature” garai artako amets eder orren lurruna. Mogel bizi zala, argitaratu ta erderaz itzulia izan ba zan, izugarriko txalo beroak joko zizkiotekean egileari, España, Frantzia ta Europako erri jakintsu guztietan. Ez orrela izan zoritxarrez. 1804’ garren urtean il zan Mogel, eta bere “Peru Abarka” ez zan 1880’ garren urte arte azaldu.

Sei zatitan banatuta dago. Peru ta Maisu Juan’ek ardanegi batean alkar ezagutzen dute, Peru, bizargileari, bere soñeko bitxidunez jantzia ikusiaz, zirika asten zaio. Asarratu egiten da Maisu Juan, eta izkera bizian, nork bere beargintzaren edertasunak azaltzen ditu. Azkenean, berandu dala ta, biok apaldu egiten dute laguntasun onean. Gaua bertan igarota, urrengego goizean, kontua eskatu zioten etxe-koandeari. Maisu Juani geiegizkoa iruditu zitzaion kontua, eta gaiztakeri aundi bat asmatu zuen. Urdai azal bat bota zuen lurrera, etxe-koandrearren bidean. Labandu egiten da etxe-koandrea ta bai miñ aundia artu ere. Maisu Juanek, sangria —odol-atera bat— egiten dio, kon-

tuaren truke, ta batere ordaindu gabe, lagun biak alde egiten dute bentatik. Peru baserriarrak, gizon zintzo ta Jangoikoaren beldurrekoa izaki, ez du ontzat artzen bizargilearen lotsagabekeria.

Peruren baserrira dijoaz, eta Maisu Juan, ango lasaitasuna ta ugaritasuna ikustea, guztiz arrituta gelditzen da. Peruren emazte ta umiekin bazkaldu ta apaldu egiten du. Baserrian lo ta biaramonean, nekazari-soñekoz jantzita, burni-ola bateko lanak ikusten ditu. Gero, lino-etzpatarietak eta beste baserrietako beargintzarik asko. Iluntzean, Peruren lagun bi datoz: Joanis, Frantzes euskalduna ta Txorgori gipuzkoarra. Lapurtarrak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak —nor bere jatorrizko izkuntzaz ari dala— alkarrekin itz egiten dute. Maisu Juani, bestien euskera ondo aditzea, zail egiten zaio. Peruk, ordea, errez aditzen du dana.

Urrengo goizaldean, Peruk, bizargileari, euskal mendietako arbolen izenak erakutsi nai dizkio eta lagun guztiak —Peru, Maisu Juan, Joanis eta Txorgori— mendi basoetara abiatzen dira. Eizan dabilen apaiz bat berengana dator. Euskaltzale sutsua, euskerazko itz askoren sorburua ta esan-naiaz, galde egiten die Peru ta bere lagunai. Ondo erantzuten diote. “Larramendik bere, ez jua edertuago esplikauko”, esaten die apaizak.

Baserrian berri, ustegabeko istillu gorriak Maisu Juan gaixoarentzako Juzgadoko aguazila bai dator, eskopeta ta guzti, ardanegiko etxeoandreaki miñ eman dion bizargilearen billa. Maisu Juani, baserriarren itxuraz jantzia ikusirik, ez dio bizargile antzjk ematen, eta alde egiten du aguazilak. Azkenean, Maisu Juanek berak, alde egin bear ere. “Agur Peru, nere biotzekua —esaten dio Maisu Juanek bere baserriar lagun onari laztan bero bat emanaz— Agur osterako artian. Ez nizaz aztu. Agur.”

“Peru Abarka” oso osorik orain aldatu eziñean, zati laburren bat aukeratu bearko. Asieratik asita, entzun dezagun Peru ta Maisu Juanen lenengo alkar izketa:

“Peru.—Jangoikoak egun onak emon daijozala”.

“Maisu Juan.—Bai zuri bere, adiskidia”.

“Peru.—¿Berori baisen Jaun apaindu batek oñak imini ardan-etxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrekuentzat obia da, berori languentzak baño. Ez naz ni Jauna; abarkak oñetan, txapel bat buruban; gerrestuba gorputzian; au da nire apainduriya guztija; baño etxagun, izen onaren zalia nasan aldeti, ez oi nas sartu ardan-tegietan nora ezian, premiñaz ta ezin bestez baño, ez jakolako etxagun begiratu bati ondo egiten buruba bat egitia gizon ospesu, bururukari, ondatzalle, alper ta baldanakaz. Ez nau oraingño iñok ikusi ardaauak igarota, gatx eginda, zabuka oñak lokaturik, ez miña mo-

"telduta, ez begijak lausotuta, asko legez, euren osasun, ondasun ta "arimen kaltian. Bein baño geijagotan izan nas neure erriko Buru "edo Piel, ta darda gañian erabili daruadaz ardao saltzallak belutu, "edo ondo gautu artian daukeezanian etxe barruban nekezaliak, edo "ate edegijaz ardaua salduten badabe debekauta dagan orduban. Ez "deust ezek gorroto ta iguin geijago emoten nekezale edan-sarri ta "ardao zaleegijak baño. ¿Zer esan nei bada berori emen ikusita? Ase- "rratuko ezpalitxakio jakin gura neuke nor dan ta zek ekarri "daben ona."

"Maisu Juan.—Adiskidia; imini egizu txapela buruban, ta esango "deutsut nor nasan. Nas bada orañago igaro dozun erriko Barberuba, "ta deitu nabee gaiso bategana. Pagau deuste bisitako errial zidarra; "baña ain dollorrak izan dira, zein da ez deusten atera trago bat; "alan sartu nas emen kuartillu bat artera, eta zerbait jaatera, bada urrin "egiten jat neure etxia barurik biurtuteko."

"Peru.—Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba "egiten nebala; agaiti nenguan txapela buruti kenduta, lotsa nintzala "berba egiten. Jakin baneu lenengoti Barberu txar bat baño etziniala, "ez nintzan Jaunka zugaz egongo, ez da bere buru atsian. ¿Eta Barberu "errukari bat, ta inoren gatxaz bizi dana, gaisorik ezpadabil zer jan "ez daukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soñoko bitxidunez, eta "ori astegun buru zurijan bidez zabiltzala?"

"Maisu Juan.—Adiskidia, egizu berba modu obian; zuk ezdakizu "zer dan Barberu izatia..."

Len esan degun bezela, garai artako euskaldunak, gaurkoak bezelako istilu ta buruausteak zerabilzkiten. Nola itz egin obeto euskeraz? Erbesteko itzik erabili bear ala? Euskal joskera garbiena zein ote? Gure batzar abetan, gai oyekiko iritziak entzun ditugu. Ta pozez entzun ere, danak euskerarenganako maitasunak eraginda bai ziran. Mogel, euskera garbi zalea zan. Peru ta Maisu Juanen arteko izketan, Peruk, baserritar utsa bezela, jator egiten du, erderazko itzik bota gabe. Ondo zatarra ta nastua, ordea, Barberuaren euskera! Orregatik biok alkarrekin ari dirala, Peru baserritarra degu, Maisu Juanen maisua.

Mogelek idatzitako lan ederren artean, ba dago beste alkar-izketa bat: "Diálogo entre dos emigos eclesiásticos, el P. Fr. Pedro de Urlija y D. Juan de Zandija". Orra alkar-izketa onen asiera:

"Fraile.—Adiskidea, eldu jat nos edo nos arpegia agertuteko une "txito ona. Sarri alkarregaz berba egin dogu, bizkaiko jaun, abade "ta nik legezko soñokoa darabilen askoren nagitasun, alperreteria ta "ardurarik eza, euskerea ikasteko liburubakaz bururik ausi бага, bada

"ez daukee liburu bizkai euskerea irakatsi leienik. Eta ¿noren erruz? "Euren erruz. Ni nabil bazterrik bazter, erririk erri, bizkaiko uri ta "elizaterik geienak irago ditudala. Abade askok nazaude, ta gitxi "gitxi batzuk baño aurkitu ez ditut euskera zaleak. Gura leukee jakin, "baña neke бага, atxurlari alperrak legez, zeñen soloa dagoan laarez, "mugitaz, azkiz, galduz, zalgaz, zoragariz, beterik."


"Abadia.—Neure Aita Pedro. Egingo dozu aurrera, gura dozun beste "berba, baña ebagi biar deusut beinik bein esatera zinuazana. Zuk "gingo dozu bizkaiko euskera berba zeure erri ta alderetan ebaten "dan legez, ta nik neuretan ikasi dodanaz. Zein batera zein bestera, "dendatu biar gara, erdera usaiñak itxirik, nekezari euskaldun utsak "irakatsi deuskuben gisaan berba egitera garbiro, ta autortu eragin "biar deutsegu, obeto aituko gaitubela geure olagizon, arotz, argiñ, "arrementari eta baserritarrak, eleisaan agertuten garianian ikasi biar "ditubenak irakasten, erdi erdera ta erdi euskera, beste euskaldun "txar askok, diadarrez diardubenian baño. Ondo egiña dago elesiak "beretu ta erdera gustietara zabaldu dituban bere berbak, guk bere "gordeetia; baña bestelango berba arrotzak, kendu biar dira, dago- "zanian izen euskerazko garbi ta nekezarijen artian artu ta aotubak..."

Izkuntza gai abetaz luze jardunda gero, Abadeak, Latíñezko itzul- keta batzuek irakurtzen dizkio Praileari: "Alejandroren berbakuntzia bere gaisotasunian, adiskide ta osagiliai", "Katilinarene jardun erre- guzkua bere soldadubai", "Jermanikoren berba jarduna soldadu ma- txinatubai", eta abar. "Entzun ditut atsegiñik andienaz euskeraratuta, "Erromarren berbetan ondo apainduta egozan esakuneak —erantzuten "dio praileak—. Sinistuko ez eben Bizkaitarrak bestelan, euren eus- "kerea zala ain aberats ta apaingarria. ¿Zer esango ete dau, dakusa- "zanean berba jardun onek Jaun Done Pedroren sermoia atera, edo "euskeratuten abiau zanak ¿Lotsatuko ete dau? ¿Zein gutxi! Esan- "go dau ez dabela erdi berbarik aituten; imiñi dala, otu dan guztia, "asmau diriala berbaak. ¿Eta nok atera bere lelo ta temati? Jangoi- "kuak argitu gura dagizala onelango gizonak. Ez dazaue zein kalte- "garria dan euren alperkeri ta nagitasuna, ikasten ondo, amaren "bularreti dakargun berbeeta ederra. Urkatuko litukee askok euren "buruak, poruko legerik txikarrena galdu ez dedin. Barriz antxinagoti "jatorkun euskerea galdu dedila ordu onean. Asko da onenbetegaz."

Orra nik Mogelen itzak berak esan bearra: asko da onenbestegaz. Mogelek, euskera maite degunai, jarraibide ederra ematen digu. Eus- kera, izkuntza oso bat da, ta berez, euskeraz adiezari ez ditek en gauzarik ez dago. Itzak ba dira ugari. Baita esakera bereziak ere. Itz eta esakera oyeke ondo ikasi ta erabili ezkerero, euskeraz, beste iñungo erderaz bezin errez eta garbi itz egingo genuke.

Ez da beti lan erreza. Ortarako lenbizi, burua nekatu egin bear, euskeraz al dan obeto ikasten. Mogelek onela egin zuen. Mendi tarteko baserritarren izkeraz, berak bezin ondo itz egiten duenik, gutxi! Ta Mogel ez zan baserri batean jayoa. Eibartarra zan, Kaletarra. Erdaldun baten semea. "Euskera da kanpora" esan zuen D'Etxeparek. Atera dezagun kanpora, bai, gure izkuntza zarra, baña Mogelek nai zuen bezela: jai egunetako soñeko ederrez jantzita ta bere kutxa barruan dituen pitxirik aberatsenak apaindua.

Zuek, gure ileroko lagun oyek, ongi dakizute au. Ekin bada aurre-ra, nundik eta nola zabilzaten, geiegi begiratu bage. "Maite ta nai dezutena egin" esaten zuen Agustin Deunak. Ongi esana gero. Euskeraz ondo itz egin eta idazten ikasteko, zuek ez dezute iñungo irakasletara jua bear. Irakaslerik onena, zuen baitan dago. Euskera maite duenari, biotzak, euskeraz itz egiten dio. Biotzaren barren barrengo izketa soñu samurra! Ba ote dago munduan joskera obe, izkera garbi ederragorik!



Claveria apezak zion, XVII'gn, mendean:

Burlatzen naiz Garibai-ez
 Bai halaber Etxabe-z
 zeinak mintzatu baitire
 Erdaraz Eskaldunetz

Ezen zirenaz gerotik
 Eskaldunak hek biak
 Eskaraz behar zituzten
 egin bere historiak.

Eskaraz egin dituzu,
 Etxeberry, zure obrak
 Ohoratu nahiz zeure
 ahalaz herritarrak.